



eilastasuna

EILASTASUNA FONDOA BULTZATZEKO IRIZPIDEAK

Irizpideak idatzita izateak EILASTASUNA fondoa bultzatzeko proiektuak aukeratzea erraztuko du urteko asanbladan.

Hauek ez dira berriak, izan ere, hauek edo antzekoak EILASTASUNAREN erabakiak hartzerakoan bertan egon dira nahiz eta idatzita ez egon. Dena dela asanbladetan parte hartu duen jendearentzat ezagunak dira.

Irizpideak adierazgarriak besterik ez dira, zeren eta, funtzionamendua aldatzen ez den bitartean, EILASTASUNA asanbladak urteko fondoekin zein proiektu onartzen den erabakitzeko ahalmena dauka.

EILASTASUNA fondoa zertarako?

EILASTASUNAREN urteko fondoak oso txikiak dira GKEek lortzen dutenarekin alderatzen baditugu eta zer esanik ez "Hegoaldeko beharrekin" konparatuta.

EILASTASUNA ez da GKE bat, ez du GKEekin lehiatzeko inolako asmorik. Ez dugu "proiektuak kudeatu" nahi, Ezta fondoak nonbaitetik lortu ere. Ez da gure asmoa karitatea egitea, pobreenen beharrak guk ez ditugula beteko jakin badakigu. Argi daukagu pobrezia ez dela egotziko soilik elkartasuna eta laguntasunaren bitartez argi daukagu.

Orduan, zer nahi dugu?

- Injustiziaren kontra eta giza aldaketaren alde diharduten erakunde herrikoiei eta antolatuei laguntza ematea.
- Erakundeek diru laguntzak emateko orduan baztertzen dituzten ekimenak bultzatzea eta dirua ematea.
- Laguntza txiki hauek pertsona eta talde hauekin solidaritate harreman bat mantentzeko baliagarriak izan daitezela nahi dugu. Harreman hauek berdintasunean oinarrituko dira, honela elkarrekin aberastuko gara.
- Gure ikastetxeetan elkartasun gehiago sortu ahal izateko, Hegoaldeko egoerak ezagutaraziko ditugu, gertatzen diren injustizien isla izanik, baina itxaropenez beterik.
- Eta ez dugu ahaztu behar, baloreetan oinarritutako hezkuntzaren bitartez, beste errealitate batzuetara hurbiltzea, geletan elkartasuna sartzeko eta Iparraldea aldatzeko tresna egokia dela.



Zein proiektu mota?

Hezkuntzarekin lotuta.

Irakaskuntzako langileak garenez, bidezkoa da arlo honekin lotutako ekintzei lehentasuna ematea, pobreziaren erradikazioarekin lotuta dagoelako: zenbat eta heziketa gehiago, orduan eta pobrezia gutxiago.

Heziketari buruz hitz egiten ari garenean, esparru guztiak kontutan hartu behar ditugu; heziketa formala, ez formala eta informala.

Norbanakoaren botereen aurka antolaketa kolektiboa indartzea.

Gabezia egoerak daudenean, maiz botere harremanak sortzen dira eman eta jasotzen duenaren artean. Fondoak kontrolatu eta banatzen dituenak, sarritan, prestigio eta botere pertsonala gehitzeko erabiltzen du, edo ideia konkretu batzuk zabaltzeko, esate baterako, ideia erlijiosoak.

Ez dugunez nahi fondoa halako egoerak bultzatzeko baliagarria geratzea, bakarkako ekintzei baino, ekintza kolektiboari emango zaie lehentasuna: komunitateen autoantolaketa indartzeko ekintzak, txiroenei autogestio ahalmena emateko, eta ez kazikeen edo buruzagi erlijiosoen boterea suspertzeko.

Genero ikuspuntua kontuan hartzen dituztenak.

Dakigunez, pobreziak eragin handiagoa du emakumeengan, eta emakumeek eskuratzen dituzten laguntza ekonomikoak familia osoaren onurarako izaten dira, gizonen kasuan hori ez da gertatzen beti. Horregatik hau kontuan hartu behar dugu ematerakoan gure ekarpena, nahiz eta txikia izan. Kontua ez da bakarrik berdintasunarena, edo proiektua zuzenduta dagoen lagun kopuruaren araberrako kuota. Ezta ere "generoaren beharrei" erantzutea, hau da, gizarteak ezarritako rola: emakumearen komunitate eta ingurune familiarraren zaintza, elikadura, osasuna, heziketa, e.a. Emakumeen menpeko rola eta baliabideen sarbidearen diskriminazioarekin bukatzeko ekimenak bilatu behar dira.

Beraien bizitzaren kontrola hartu ahal izateko, edota esparru publiko erabakitzaileetan sarbidea errazteko emakumei (neskatilak, gazteak, helduak) laguntzen dizkieten prestakuntzarako ekintzei garrantzi berezia emango zaie.



eilastasuna

Elkarren arteko komunikazioa errazten dutenak.

Ez dugu jarraipen tekniko edota kontrolatzailerik eman nahi. Interesatzen zaigu jakitea zein zailtasun eta aurrerapen izan dituen lagundu dugun jendea. Hori dela eta komunikatzeko bideak beharrezkoak ikusten ditugu.

Gure elkartasuna sustatzeko elkarren arteko harremanak joanda etorrikoak izango dira. Horrek informazioa afiliazioari helaraztea dakar berarekin.

Ikastetxeetan eragina eduki ahal izatea.

Asanbladak proiektuak aztertuko ditu ikastetxeetan ze nolako eragina izan dezaketen eta hezkuntza komunitatearekin hartu-emanak sustatzen dituzten ikusteko, Garapenerako Hezkuntza bultzatuz.

Herrialde guztiek proiekturen bat izan dezaten.

Herrialde bakoitzak gutxienez proiektu bat izatea saiatuko da.

EILASTASUNA fondoak nola funtzionatzen du?

Bitartekaririk gabe.

Harreman zuzenak izango ditugu proposamenak aurrera eramango dituztenekin: diru ekarpena banku transferentzia baten bidez egiten da, edo norbaitek haraino eramaten du.

Hegoaldeko jendeak edo erakundeek % 100-a jasotzen dute.

STEE-EILASeko ohiko egituratik kudeatzen da eta sortzen diren gastuak banku transferentziakoak dira soilik.

Horrek ziurtatu eta bermatzen du ekarpen guztiak proiektu guztietara iristen direla.

Urte bete baino iraupen luzeagoa duten proiektuentzat onartutako baldintzak denboraldi osoan errespetatuko dira, baldin eta hartutako konpromisoak betetzen baditu.